

Bizkaia

Barakaldo

San Vicente

### BIZKAIKO LABE GARAIETAKO ETXEAK CASAS DE ALTOS HORNOS DE VIZCAYA



Labe Garaietako etxeak San Bizente auzoan daude, Francisco Gomez eta Elexpuru kaleen artean. Bizkaiko Labe Garaiak enpresak langileentzat hamabi etxe eraikitzeko agindu zion Manuel Maria Smith arkitektoari 1915. urtean, eta agindu hartatik sortu zen honako etxe-multzo interesgarri hau. Hasiara batean, Smithek hainbat arkitektura mota nahasian erabiltzea proposatu zuen, Britainia Handiko estiloa eredutzat hartuz. Ez ziren asko izan, ordea, erabilitako tipologiak, eta familia bakarreko etxebizitzak binaka eta hiruak elkarri atxikirik eraiki zituzten L itxurako orube batean. Bi urte geroago, 1918an, arkitektoak aurrekoekin lerrokaturik hiru solairuko hamaika etxe berri eraikitzeko proiektua egin zuen, eta halaxe osatu zuten gaur egun oraindik ere mirets daitekeen 23 etxebizitzako multzoa. Monumentu izendatu dituzte 2012an.

Las Casas de Altos Hornos, se ubican en el barrio de San Vicente, entre las calles Francisco Gómez y Elexpuru. En 1915 la empresa Altos Hornos de Vizcaya encargó al arquitecto Manuel María Smith la construcción de doce casas para sus empleados, que darían lugar a este interesante conjunto. Originalmente Smith planteó la combinación de diferentes tipologías arquitectónicas, tomando como modelo el estilo de las comunidades británicas. Sin embargo, el resultado final fue un conjunto menos diversificado, en el que las viviendas unifamiliares, divididas en dobles y triples, se adosan unas a otras en un solar en forma de L. Dos años después, en 1918, el arquitecto proyectó once nuevas viviendas de tres alturas, alineadas con las anteriores, que vinieron a completar el conjunto de veintitrés viviendas que es posible disfrutar en la actualidad. Han sido declaradas monumento en 2012.